



## Izaskun Bilbao Barandica

ALDE taldeko lehendakariordea eta EAJko eurolegebiltzarkidea

**I**ragan den urriaren 4an kataluniar prozesua, ofizialki behintzat, «estatu kide baten barne gaia» izan dena, indar handiz sartu zen Europako Parlamentuko osoko bilkuraren eguneko aztergaien artean. Lorpen horrek zeri-kusi handiagoa du Espainiako Gobernuaren aldrebeskeria eta baldarkeriarekin eta estatu horrek dituen Polizia Nazionalak eta Guardia Zibilak baliatutako neurrigabeko indarkeriarekin, Generalitatearen Kanpo Ekintza zerbitzuaren trebeziarekin baino.

Itziluen kontrako polizia hiritar bake-tsua astintzen zituela ikusi dugu, eta irudi horiek Europari argi eta garbi transmititu diote estatuko agintariak zer-nolako sinplismo eta erlatibotasunarekin erantzun dioten erabat zilegi eta baketsua izan den aldarrikapen politikoari. Sinplismoa aipatzen dut, aurrean zuten auziari ezin zitzaiolako eman zaion baino trataera okerragoa eman. Erlatibotasuna, polizia-ren jardun hori eta ustez «legezkoak» ziren beste neurri batzuk argudiatzeko erabili dituzten zioak benetan ahulak direlako eta ez dituztelako oso toki onean uzten, legea eta errespetua aitzakiazat hartuta, indarkeria hori beren jarrera justifikatzeko erabili duten horiek.

Horregatik, hain zuzen, esku hartze hura European ia aho batez izan zen gaitzetsia, Frank Timmermans Holandako presidenteorde eta EBn zuzenbide estatuaren egoeraren batzordeko arduradunaren jarrera beldurti eta konplexuz bete alde batera utzita. Gehiengo baten jarrera nire taldeko presidente Guy Verhofstadtek esandako esaldi batek laburbiltzen du: «Ezin da legearen kontra egin eta ezin da legetik kanpo gobernatu, baina soilik legearekin ere ezin da zatiketa egoera gainditu». Hau da: ezinbestekoa da elkarrizketa politikoari ekitea, arazo politiko bat konpontzeko.

Baina horrek ez dizkigu ahaztarazi behar proces-aren azken fase honi ekiteko erabili zen prozedurari egin zaizkion ohartarazpenak. Argi bezain garbi gertatu baitzen Europako estatuek eta are gutxiago europar erakundeek alde baka-rretik eginiko independentzia adierazpenari ez diotela ulermenik eta are gutxiago aitortpenik eskainiko, aldarrikapen horrek gutxienez hauteskunde erroldaren %50eko babesa jaso ezean. Azken finean, Tajani presidenteak esan zuenez «ezinbestekoa da elkarrizketa ahalbidetuko duen hausnarketa sakona egitea».

Jarrera eraikitzaile horiek, aspaldian behintzat *progre* eta *moderatu* zeritzon prentsaren aldetik ere eskaini ziren irain saldo eta konponbide *belenestebanistekin* konparatzen baditugu, argi eta garbi ulertuko dugu heldu garen egoera honetara nola iritsi garen. Lehenengo eta behin, Espainiako *establishment*-aren zati handi batek ez due-lako ariztasun printzipioa ulertzen. Horri lotuta daude estatu bat gaur egun eta etorkizunean izango dena ulertzeko dituzten ideia zaharkituak. Eta, jakina, erabateko ezintasuna dute gustuko ez dituzten errealitateak onartzeko. *El País* egunkariak argi eta garbi informatu zuenez «Estatuak indarrez eragotzi du erreferendum ilegala», baina, egun hartan erabilitako basakeriarekin ere, hauteskideen %5 baino ez zuten ixtea lortu eta bi milioi herritarrek Espainiako inteligentzia osoa burlatu zuten hautetsontzietan eta boto orriekin bozkatzea lortu zuten.

Generalitateak joko-mahai gainean kartak zabaldu ditu eta azken hilabeteotan izan ez zuen aukera dauka orain. Puigdemont presidenteari lehen mugimendua egin zuen deklarazio etetearekin, eta, nire ustez, arazo hau beste bide batetik bideratzeko atea zabaldu zuen. Europako agintariak egoera baretzeko hobesten duten bidea. Ea zein den beste aldetik emango dioten erantzuna.



Hainbat esteladarek Parlamentuan 4an. PATRICIA